

GOBERNANTZA ETA GARDENTASUNA



EGOERA

Eusko Jaurlaritzak ez du bere Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu onaren Lege Proiektua aurrera eramateko gai izan; halaber, ez du sustatu gai publikoak erakundeen eta herritarren artean kudeatzeko moduak ezarriko dituen bestelako neurririk.

Beraz, ordezkartza-botere publikoen jardunaren

kontrolaren inguruan, herritarren erantzukizuna berreskuratu behar da. "Arlo publikoan" parte hartzeaz harro egon behar dugu eta atsegin handiz gauzatu, alderdi publikoei dagokienez ere (gure ongizatea horien mende dago), gure bizitzan eraikitzaile zuzen eta arduratsuak izatea lortzeko.

HELBURUAK

Gure erakundeek jendartearen berdintasuneko, justiziako eta askatasuneko zenbait helburu/eskaera/eskubideri erantzuna emango diete. Eskaera/eskubide hauek gauzatzeko ezinbestekoa da botere publikoen eta herritarren edo jendarte zibilaren arteko benetako harreman bat sustatzen eta babesten duen erakunde-garapeneko esparru bat, jendarte zibilak gobernu- eta legegintza-jardunetan inplikazio zuzena izan dezan.

Administrazio publikoek hizkuntza zuzena eta erraza erabili behar dute, teknizismoak gabekoa, herritarrek, arazo erantsirik gabe, administrazioarekin elkarrengaitzeko aukera izan dezaten. Gainera, sortzen den informazioa unean-unean eta modu eskuragarrian eskainiko da, herritarrek informazio egokia izan dezaten, egiten diren kudeaketa eta inbertsioen inguruan.

Kargu politikoak eta Jaurlaritzari izendapen librearen bidez atxikitakoak herritarren zerbitzura dauden pertsonak direnez, gastu publikoa modu zorrotz eta gardenean kudeatzea ahalbidetzen duten neurriak hartuko dira.

NEURRIAK

1

LEHENDAKARIAREN ETA JAURLARITZAKO GOI-KARGUEN SOLDATAK MUGATZEA, ETA PRIBILEGIOAK EZABATZEA.

Funts publikoak beti modu zorrotz eta eraginkorrean administratu behar dira, eta balio horiek kargu politikoaren soldatek eta dietek eragindako gehiegizko gastuarekin bateraezinak dira. Printzipio honi jarraiki, Jaurlaritzarako edo erakunde publikoetarako modu librean izendatzen diren pertsonen zuzendutako honako neurri hauek aktibatuko dira (eta Gasteizko Ganberan aplikatzeko proposatuko dugu):

Lehendakariaren, sailburuen eta izendatutako goi-karguen soldata gutxienez % 25 murriztuko da.

Aparteko dieten ordainketa sistematikoa ezabatuko da.

Karguaz jabetzeko unean eta kargua uzteko unean, dagokion karguaren ondarearen aitortpen publikoa aurkeztuko da.

Kargu publikoak ez du parte hartuko ezein gaietan baldin eta interes ekonomikoa edo bestelako abantaila pertsonalik edo familiarrik izan badezake, betiere funtzio publikoa betetzearekin loturiko gaia denean.

Halaber, ez du baliatuko karguan dagoelako eskuratu duen informazioa, bere edo besteren mesedetan, ez zuzenean edo zeharka, ezta karguan dagoen bitartean edo kargua utzi ondoren ere, eta ez du oparirik, dohaintzarik, gonbidapenik edo beste edozein prebendarik onartuko.

Ate birakarien politika saihesteko, kargua utzi ondorengo bost urteetan, ezin izango da agintean betetako arloarekin lotutako enpresa edo erakundeekin kontratu-harremanik ezarri.

2

KARGU POLITIKOAK HERRITARREN EKIMENEZ BALIOGABETZEKO LEGE BAT GARATZEA

Herritarrei beren ordezkarien gobernagarritasunari buruzko iritzia agertzeko erremintak ematea proposatzen dugu, lau urtez behingo plebisizituez haratago; horrela, gobernu autonomikoaren edo haren ordezkari baten gobernatzeko moduarekin desadostasun larriak sortzen direnean, hura baliogabetzea eskatzeko aukera izateko:

EAE osoan erroldatutako 16 urtetik gorakoen % 10en sinadurekin Lehendakaria edo sailburuorde bat kargugabetzeko erreferendum bat aktibatu ahal izango da, 3 hilabeteko epean.

Eskaera Gobernu Autonomikoari aurkeztutakoan, Gobernu horrek erreferendum lotesle bat deituko du 3 hilabeteko epean.

3

JAURLARITZAREN ETA LEGEBILTZARRAREN JENDARTE-KONTROLEKO SAIOAK SUSTATZEA

Honako hau proposatzen dugu: jendarte zibil antolatutako Jaurlaritzaren eta legebiltzarraren lanaren gaineko kontrol zuzena gauzatzea legebiltzar-saioetan.

Hilean behingo jendarte-kontrolko saioak; saio horietan, lehendakariak edo interpelatutako sailburu edo legebiltzarkideak zuzenean erantzun beharko du.

Jendarte-kontrol hori arautzeko herritarren parte-hartzeari buruzko Legea egokitzea.

4

KONTROL ETA GARDENTASUN PUBLIKOARI BURUZKO BEHATOKI BAT SORTZEA

Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren jardura publiko guztiaren publiziterako mekanismo tasatuak aktibatzea, aldez aurretik, herritarren alegazio-faseak ezarriz, ustelkeria eta bestelako botere-desbideratzeak kontrolatu ahal izateko.

Jaurlaritzaren jarduera balioesteko edo neurtzeko tresnak aktibatzea, datuak biltzeko eta herritarren ikuspegiak eta iritziak zehatz-mehatz ezagutzea ahalbidetuko duten mekanismo tasatuen bitartez.

Herritarrekin elkarrizketan aritzeko gune bat sortzea, informazioa eskatzeko eta proposamenak aurkezteko.

Sailburuen eta Lehendakariaren eguneko agenda instituzionala ezartzea.